



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Igandea  
2008-03-30**

VIURTEA 1.395.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Pekingo Olinpiar Jokoetarako txartela lortu du Leire Olaberriak

**IKAZTEGIETA** Txirrindulariak Munduko Txapelketako puntuazio proban laugarren egin zuen atzoko saioan

**SAIOA** Cespa-Eustrak taldeko Larruskain idazkariak adierazi zuenez, «ezin hobe aritu zen, ziurtasunez» 7



Atzoko partidaren une bat. N. URBIZU

### Gipuzkoak irabazi du Arabaren aurka GRAVNen

**TOLOSALDEA** Tolosako Beotibar pilotalekuan aritu ziren eskualdeko pilotariak 7

### Eguraldi onak azokako erosle eta salmenta kopurua berpiztu du

**TOLOSA** Barazki gehienek gora egin zuten nabarmen, baita perretxikoek ere 3



Aimar Irigoien (bigarrena ezkerretik) eta bere taldekideak atzo Tolosako Kantabrikon egindako agerraldian. ESTI EZEIZA

## IZETA II.AREN DESAFIOARI ERANTZUN DIO IRIGOIENEK

**TOLOSA** Errezilgoak baldintza ezberdinak ezarri zituen atzo emandako prentsaurrekoan; apirilaren 12an Kantabrikora agertzeko deia luzatu die ausartzen direnei 6



### Zenbat hamaika mila?

**Citroën C4**  
11.600€\*tik aurrera



**Citroën C3**  
8.900€\*tik aurrera



**Citroën C4  
PICASSO**  
5 eserlekukoa,  
19.050€\*tik aurrera

## Zorionak!



### » Uzturretik

**Andu Martinez de Rituerto**

**U**zturreko punta honetatik ikusten nuena kontatzeko aukera eman zidatenean bi gal-

dera etorri zitzaizkidan burura; nori interesatuko ote zaio nik esan dezakedana? Eta, ez al da Tolosan nik baino dezente hobeto egingo lukeena? Lehenengoari ez diot erantzunik topatu, edo bai, gutxi batzuk (gutxi, azpimarratuta) aipatu izan didate eta, nik idatzitakoa irakurri dutela (beste batzuk "HITZAN ikusi haut" batekin etorri izan zaizkit...) Bigarren galderaren erantzuna berriz bapatekoa izan zen; noski baietz, mordoxka dira Tolosan eta Tolosaldean nik baino

askoz ere hobeto egin dezaketena. Gaiaren gaineko hausnarketarekin jarraituz, konturatu nintzen HITZAKO arduradunek ez zutela goi mailako lumarik biltzen txoko honetarako (nire kasuan bistan zegoen...) zenbait herritarren ikuspegi, iritzi eta hausnarketei tokia egin nahi zioten bere, gure kazetan.

Horixe izan da-eta HITZAREN gogo eta asmoa bost urte hauetan, eskualdeko gertakari txiki eta ez hain txikien lekuko eta bozgorailu izatea, eta ahalegin

horretan herritarren hitzari ere tartea ematea zutabetako bat izan dela argi asko esan dezakegu. Eskualdeko aniztasuna islatzeko ahalegina denoi dagokigu: HITZAKO arduradun eta kazetari-iei ikusmira toki ezberdinetan, jarriz eta gertaeren kontakizun ahalik eta gardenenak eginez; irakurleoi, berriz, gure iritziak eta kezkek HITZAN plazaratuz.

Zorionak beraz HITZA errealtate egonkortua izateko ahalegina eta lana egin duzuen guztiguztioi.

### E Efemerideak

#### Joxe Mari Aranalde gazteluarra jaio zen

Martxoaren 27an, 1933. urtean, Joxe Mari Aranalde ezaguna jaio zen Gaztelun.

Gertutik ezagutu zutenek Tolosaldeko idazlerik oparoenetakoa, itzultzaile bikaina, bertsozaintza maisua, kontalari atsegina, sermoilari sakona, hitz-jario handikoa, lagunena laguna eta apaiz zerbitzaria bezala deskribatu zuten Aranalde. 72 urterekin hil zen Ibañan, gaixotasun luze baten ondoren.

### A Asteko irudia



## Eskualdeko errekek ere urez gainezka

### H Hilberriak

#### MIKEL IBARGUREN ETXEBERRIA

Martxoaren 28an, Madrilan hil zen, 40 urte zituela



Mikel, adiorik ez, beti gure gogoan izango zaitugu



**Etxebarriatar lehengusuak**

Hileta-erantzukizuna Lizartzako SANTA KATALINA parroki elizan arratsaldeko SEIETAN izango da

**LIZARTZAN**  
2008ko  
martxoaren 30an

#### JUAN JOSE ZUBIAURRE IRIBARREN

Atzo hil zen, 78 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.



- Goianbego -  
**OTEGI - UGALDE FAMILIA**

Haren animaren alde otoiitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzazela, BIHAR ASTELEHENA, arratsaldeko SEIETAN, Aikizako SAN MARTIN parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Arraitza Baserría

Oharra: Gorpua Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan egongo da, ASTELEHENA goizeko 10:30ak arte. Lur ematea goizeko 11:00tan izango da



**TOLOSAN**  
2008ko  
martxoaren 30an



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# FUNERARIA VASCONGADA

EHORZKETAK

**902 402 900**  
zerbitzu iraunkorra

**BULEGOAK:** Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

## Eguraldi onak salmentak berpiztu ditu azokako egun animosoan

**Azoka** » Udaberri usainak jendetza erakarri zuen; barazki gehienek gora egin zuten eta perretxikoak ere saldu ziren.

PABLO ALBERDI

Azokako azoka eguna oso animoso suertatu zen lehenengo ordutatik. Eguraldia lagun zutela, erosle ugari gerturatu ziren mahaietara, salmenta kopurua berpizten. Askok ziren eguraldiaren aldaketaren zain zeudenak, eta atzo mabarrendu genuen Tolosan.

Eskaintzaren ere eragin positiboa izan dute egun hauetako eurriak. Barazkiak gehienak gora egin dute, onddo eta perretxikoak ere ikusi ditugu, ziza eta onddoen forman, eta apaingarriko landare askoren aurkezpena ere atzo izan zen.

Berdura plazan Geranioak, alegriak, kaléndulak, klabelinak, begoniak eta surfiniak ikusi genituen berrikuntzen artean, eta dirudieneguz, eguraldia lagun badugu, datozen asteetan eskaintza gora egingo du.

### » ATZOKO AZOKA

	Merk.	Gares.
<b>Berdura plaza Landareak</b>		
Alegria	1,00	1,20
Geranioa	2,00	-
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbot	4,00	6,00
Klabeledina	2,80	4
Kalendula	2,50	-
Surfinia	2,40	-
Lobelina	4,50	-
<b>Bertako produktuak Perretxikoak</b>		
Ziza	70	100
Onddo	30	-
<b>Fruta</b>		
Matxakana	6,00	-
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00
<b>Barazkiak</b>		
Babarrun zuria	8,00	10,00
Ilarra	12,00	-
Tomatea	2,00	4,00
Porruak	1,00	8,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Zainzuria	16,00	-
<b>Gaztak</b>		
Gazta berria	16,00	-
Behigazta	14,00	18,00
<b>Produktu ekologikoak</b>		
Intxaurra	4,00	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00
Aza	2,50	3,00
Ahuntz gazta	3,00	-
Mermelada	3,00	3,60

## E E z t a b a i d a info

**Martxoaren 25ean HITZAK bost urte bete ditu. Zer balorazio egiten duzu eskualdeko egunkariaren inguruan?**

«Ni oso gustura irakurtzen det egia esan oso arraro egingo zitzaiten orain egunerokoa Hitza gabe. Noski normala den bezala, egun batzuetan hobea goa besteetan normalagoa da, baina orokorren oso ondo ari zarete la iruitzenait. Segi holal!».

«Behin ohituta, zaila da HITZA gabe esnatzea, gertuko kontuak azaltzen direlako, eta oso errega da irakurtzeko. Animo HITZA!».

«Zorionak Hitza!!! Bete dago zer hobetu baina ongi ari zarete, herri txikiak gehiago agertzea gustatuko litzaidake bezala, eta oso errega da irakurtzeko. Animo HITZA!».

«Miren. «Niri ere herri txikiak gehiago agertzea gustatuko litzaidake, hala ere badakit ez dela erraza izango zortzi orriko egunkari batean!! Eta albisteak ere ez dituztela handiek bezala, baina bideren bat bilatu beharko zenukete herri guztiek beren lekua izan dezaten beren orrian. Zorionak!! Animo eta segi aurrera!!!».

«Aitor. «Nik behintzat beharrezkotzat hartzet egunkari hau. Hemen Euskal Herrian, euskararen aldeko ekimenak oso garrantzitsuak dira eta HITZA bere eskualde guztietan hoitako bat da. Gero sar gaitezke debaten herri txikiak, herri handiak, baina bere funtzioa ukazina da. Bizitza luzea opa dizuet nik behintzat. Milesker.».

«Olatz. «Nik ere oso gustura irakurtzen det, irakurteraza itezait gainera eta beti politta da zure gertuko jendearen berri izatea. Gogoratu naiz iaz kanpoan egon nintzanean internet eskura nuen bakoitzean hitzan sartzen nintzela. Milesker zuen laguntzagatik eta zuen lanagatik. Hori bai, ados nago herri txiki tartet gehio eman beharko zenuketela dion irakurlearekin.».

«Niri ere oso ulerterraza egiten zait eta jada oso arraroa egingo litzaidake goizero goizero HITZA gabe gosaltzea. Gainera, okinarekin iristen ez den egunetan amorratu egiten naiz. Beharrezko ikusuten dut euskarak aurrerajarra dezan. Zorionak HITZA!».

**@ Begiradak.** HITZAren webgune berrituak atal ugari ditu, betikoak zein berrituak. Horien artean dago *Begiradak* atala. Bertan, gai berrinari buruz argitaratu diren artikulak biltzen dira. Orain, gainera, *Soka motzean* era laburrean egiten diren elkarrizketak guztiak bildu ditu Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK *Begiradak* atalean. Klikatu gure webgunean eta irakurri berriro gehien interesatzen zaizkizun gaien buruzko artikulak.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## S S o k a m o t z e a n

«Lehenago azokan tratuan ibiltzen zen eroslea, orain ez»

**JOAKINA ITURRIOZ**

Nekazaria

ESTI EZEIZA

Barazkiak saltzen ditu Tolosako Azokan (Añoeta, 1944).

**Zenbat urte daramatzazu azokan saltzen?**

30 urte behintzat bai: txikitan ere etortzen nintzen.

**Zein alde nabaritzen duzu lehenago eta oraingo garaian?**

Lehenago regateatu egiten zen: orain ez. Orain prezioaz galde-  
tu ondoren, erosi ala joan egiten dira. Bestalde, orain berdura  
daukanak asko egiten du. Nekazari gutxiago dago baina hauek  
lan gehiago egiten dute.

**Zer saltzen duzu gehienbat?**

Garaian garaiko gauzak, barazkiak. Arrautzak ere baditut.

**Zein dira barazkietan erregeak?**

Udan letxuga eta neguan babarrunak, espinakak... Dena da  
ona.

**Zure jakien artean zein jaten duzu gustukoen?**

Porru patata gustura jaten dut.

**Zeinek ematen du lan gehien?**

Babarrunak agian. Tomatea ere bai.

**Merkatu handietan erosten du jende asko...**

Gaske gutxiago ikusten da hemen. Baina plastikoa gainean  
duen produktu horrek berea ez den zerbaite dauka. Azokan  
daudenek, ez dute ez pozoinik ez bitaminarik hartu. Bere ho-  
rretan ekartzen ditugu barazetik azokara.



N. URBIZU

## Z Z u r e a d a h i t z a info

# Bidegorriaren zati bat arriskutsua

**Alegia** » «Aldatu behar al dute Alegirako sarreran Tolosatik datorren bidegorriaren bidegurutze hori? Arriskutsua da».

bere horretan geratu behar al duen. Arriskutsua da eta egunen baten disgustoren bat izango da, izan ere, agian norbait balin bada-  
tor ez dizu denbora nahikoa ema-

ten frenatzeko. Guztiok arretajari behar dugula argi dago baina hala ere irtenbideren bat eskatuko nuke, bestela oso ondo iruditzen zait bidegorria jartzea.

INAKI (ALEGIA)

Aupa. Alegiko herritar bat naiz eta atal hau bideratu nahi dut kexu bat baino, kezka bat azaltzeko. Tolosatik autoz zatorrela Alegira sartzera-  
koan dagoen kurba horretan (zubi-  
bitxorairitsi aurretik dagoena) Tolosatik datorren bidegorriarekin egiten duzu topo.

Bidegorria gurutzatu egin behar da, nahiz eta gorritz markatuta ez dagoen. Badakit autoek hor manto sartu behar dutela baina errealitate da askotan abiadura hartzen dela. Pare bat aldez ikusi dut ia-ia txirindulariren bati harrapatu edo susto ederra harrapatzea oinezkoek.

Horregatik galdetu nahi dut ea hori aldatu behar ote duten edota

## Iragarki laburrak

**GALDUTAKOAK**

«Muxala. Muxal bat galdu da Uli aldean. 653 71 12 59.

# hitza

k 5 urte

## h h JAIALDIA h h

Apirilak 5 • Larunbata

**17:00:**  
Tolosako Beotibarren

**Xurdir**  
kontzertua.  
Sarrerak:  
harpidedunentzat 3 euro,  
besteentzat 5 euro.

**18:00:**  
**Mus Txapelketa azkarra**  
Tolosako Oargi Elkartearen. Irabazleentzat bazkaria edo afaria Tolosako Isastegi sagardotegian.  
Parte hartzeko, 17:30ean Oargin bertan izena eman beharko da eta bikote bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu.

**21:00:**  
**Bertso afaria**  
Tolosako Oargi Elkartearen, Amaia Agirre, Jesus Mari Irazu eta Diego Riaño bertsoariekin.  
Txartelak salgai Zizurkilgo Aurreran, Tolosako Raku eta Denak eta Leitzako Torrea tabernetan. Harpidedunentzat 20 euro, besteentzat 25 euro.

**Afalostean poteo herrikoia, trikitixaz lagundurik.**



«Aste Santua hermen pasa dut eta Zazpi bidetatik ateratako argazki bat, Leaburu herria ikusten delan, azaldu digu Garbiñe Azaldegik.



Maria Dolores Arrietak ere Euskal Herriko txokoak bisitatzeko baliatu du Aste Santua «Aralaren ateratako argazki bat bidaltzen dizuet», esan digu.

# PAISAIAREN EDERTASUNA

**ANOETAKO HERRI IKASTOLA**

- 2 urteko gela. Haur Hezkuntza. Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitateko hezkuntza eskualduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

**MATRIKULA EPEA:**  
Martxoaren 31tik  
apirilaren 11ra arte

**Matrikulazio Ordutegia:**  
© 943 65 46 13-65 29 32  
9:00-13:00 - 15:00-18:00  
anoetaki@kastola.net

**Tolosaldea-Leitzaldea** » Batzuk etxetik gertu, beste batzuk urrun; aukera anitzak aukeratu dituzte irakurleek Aste Santua igarotzeko baina leku guztietatik ere heldu zaizkigu lehiaketara argazki ederrak.

**uzturpe**  
IKASTURPE BAT BEHIN KONTATU  
bi urteko gela  
LUGOETIK  
IKASTOLA

«Biltzen, biltzen ari naiz, nire herriko bideetan...», zioen ostia ezagunak. Kontatu asmatu zuzenari atzetik ez zitezaion falta; izan ere, HITZ ARA argazki lehiaketan parte hartu nahi izan duten hiru irakurle hauek ezean, Euskal Herriari bertan topatu dituzte paraje eta paisaia ederrak, urrutira joan gabe.

Azko dira eguraldiaren keku izan direnak Aste Santuan, baina ukazina da elurrak eskaintzen duen iluspegia paregabea dela, alderantziz.

Kanpoaldara jo dutenek ere topatu dituzte argazki kamerekin berriak gozatzeko uneak. Turkiatik edota Moncoyo (Aragoi, Espainia) lehiaketara heldu diren argazkiak dira horren adibide argia. Olatz Etxeberriak eta Ion Alhuna bidaltzeko.

**DIREKAZIOA**

«Biltzen, biltzen ari naiz, nire herriko bideetan...», zioen ostia ezagunak. Kontatu asmatu zuzenari atzetik ez zitezaion falta; izan ere, HITZ ARA argazki lehiaketan parte hartu nahi izan duten hiru irakurle hauek ezean, Euskal Herriari bertan topatu dituzte paraje eta paisaia ederrak, urrutira joan gabe.

Azko dira eguraldiaren keku izan direnak Aste Santuan, baina ukazina da elurrak eskaintzen duen iluspegia paregabea dela, alderantziz.

Kanpoaldara jo dutenek ere topatu dituzte argazki kamerekin berriak gozatzeko uneak. Turkiatik edota Moncoyo (Aragoi, Espainia) lehiaketara heldu diren argazkiak dira horren adibide argia. Olatz Etxeberriak eta Ion Alhuna bidaltzeko.

**Irurako Ikastola**

- (2-9 URTE)
- Lehen Hezkuntza
- 'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'

Sol Miguel 5 - 20271 IZURBA - Tel: 943 69 43 74 - iruraki@kastola.net

**ATX 8100**

HEZKUNTZA  
MARTXOAREN 31tik  
APRILAREN 11ra arte

www.atx8100.net

**ISASTEGI**  
HEZKUNTZA

Aldeba-Txiki auzoa, 15 A - 20400 TOLOSAN - Tel.: 943 65 29 64  
www.isastegiargotezia.com - tola@isastegiargotezia.com



Ion Alhuna argazki eder hau bidali du: «Moncoyo-ko (Aragoi) parke naturalaren inguruan ateratako argazki da. Bertan, inguruko mendi baten azpik erreko baten jaiotza ikus daiteke. Erreko hauen kanaltan zehar berretzen dira bertako baratzak uretatzenko nahiz lurralderako ur edagarria metatzeko.



Bidaia zoragarri egin du Olatz Etxeberriak bere lagunekin batera. Hauxe kontatu digu: «Turkiako Capadocia herriko ilus daiteke, sumendiaren labar egindako etxeetan bizi dira bertakoak.

**Epea apirilaren 10era arte**

Opari interogagarriak jarri ditu HITZAK aukerari lehiaketan parte hartu dutenen artean. Beraz, kanpoan nahiz etxean, argazki kamerekin emun duzueko bidali zuten argazkiak.

Irabazleak bi laguntzako asunturatu gero ihail izango du. Olatz Etxeberriak baina, berriz, Berrubiako Iriarte jaietxean bi laguntzako bazkaria edo afaria izango da.

**NUTRIZIO AHOIKULARITZA**

DIETA PERTSONALIZATUAK  
OBESITATEA  
NUTRIZIO BERRIZKETA  
HELDUAK ETA HAURAK

KONDEKO ALDAPA, 3 B - 2ª ESKUBIA, TOLOSAN. TEL: 679 204 888

**ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA**  
IKAS KOMUNITATEA

**PEDRO M<sup>o</sup> OIÑANO HERRI ESKOLA**

Pogonurjo auzoa, 16 • © 943 691 4 78 - ZUZKIL  
Foto: elektronikoa: 012041.eoi@hezkuntza.net

**PELLO ERROTA**  
herri ikastetxea  
ASTEASU - Elizmendi z/g

Antonia Urteburu  
Ezkerdoren  
Auzoa  
Bilabona

Tel./faxa: 943 69 22 13 Posta elektronikoa: 012077a@hezkuntza.net  
Haur Hezkuntza: 943 69 29 25 Web orria: www.ankalnet.net/pelloerota

**TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

94361842 www.ankalnet.net

**Santamaria**  
94361387 www.pitaxa.net

- HAZI HEZKUNTZA (2 URTEtik HASITA)
- LEHEN HEZKUNTZA
- DEGI GORDEZKO BIGARREN HEZKUNTZA
- ZEREGINEN IKASKUNTZA GELA
- LAN HASTAPEN EGOKITUA
- BATZLERGOAK

**0 EREDUA-KALITATEZKO IRAKASKUNTZA**  
MATRIKULA EPEA: MARTXOAREN 31tik APRILAREN 31ra

**VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Matrikulazio epea:  
Martxoaren 31tik  
Apirilaren 11ra arte

Fleming Ikastetxea,  
Haur Hezkuntza Antzerki (0-3 urte)  
Lehen Hezkuntza Antzerki (0-12 urte)  
Tel.: 943 69 25 12 • Tel. Fax: 943 691 413  
012277a@hezkuntza.net

**Erriobea Ikastetxea,**  
Derrigorleko Bigarren Hezkuntza:  
Antzerki (12-16 urte)  
Tel. Fax: 943 69 37 33  
012922a@hezkuntza.net

**LASKORAIN IKASTOLA**

HEZKUNTZA  
MARTXOAREN 31tik  
APRILAREN 11ra arte

www.laskorain.net

**KONPARKESA HERRIKOIA** Inude eta Artzainak

3. Astelehena (Martxoak 31n lehen entzuga)  
4. Asteartea (20:30-22:30) eta Ostirala (18:30-22:30)  
5. 20:30etatik 21:30etara  
6. Bilabonako Basobolo garbaran  
7. harenan@inkari.net - Tel. 662 129 380

**SANTO JAIAK**

Uztailak 27,  
igandea  
BILLABONA

dantzariak,  
musikariak,  
portionalak,  
dabborrada

hitza® dute nahiz heldu, denak bazero,  
egun eder bat igarotzeko animatzen saiatuko!

## Laburrak

### Bordondantzarako entseguak abian dira

**TOLOSA** ● Ohiturari jarraituz, datorren astean hasiko dira sanjoanetako Bordondantzarako entseguekin. Lehendabizikoa ostegunean izango da, 20:30etik aurrera. Saiok Tolosako Usabal kiroldegian egingo dituzte.

### Wing Txun ikastaroa asteazkenean hasiko da

**IBARRA** ● Udalak antolatuta Wing-Tsun ikastaroa izango da apirilaren 2tik ekainaren 23ra bitartean. Eskolak astelehen eta asteazkenean izango dira, 20:30etik aurrera. Saiok Ibarrako Belabieta kiroldegian izango dira. Izen-ematea ere bertan egin daiteke. Ikastaroaren prezioa 85 eurokoa da bazkideentzat, gainekoentzat 117.

### Patxi Tenaren Kubako lanak ikusgai daude

**ALEGIA** ● Patxi Tena tolosarra urtero Kubara joaten da eta bertatik, arteak ikasten dituzten ikasleek lanak ekartzen ditu: asmoa haien laguntzea da, materiala utzi, beraien margolanak salduz... Hauek ikusgai dira aste honetan.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Balarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

**Tolosa.**

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen.:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

**GARRAIOAK.**

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarar autob.:** 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

**BESTERIK.**

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udalzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**lurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

# Aimar Irigoienek Izeta II.aren desafioari erantzutea erabaki du

**Tolosa** ● Baldintza ezberdinak ezarri, apirilaren 12an, hitz egiteko, Kantabriko agertzeko deia egin die ausartzen direnei.

#### ESTI EZEIZA

Jose Ramon Iruretagoiena Izeta II.ak duela egun gutxi botatako desafioari erantzuna eman nahi izan dio Aimar Irigoien harri-jasotzaile gazteak. Izeta II.ak, Euskadi Irratiko *Hiru Erregeen mahaian* saioan, martxoaren 19an, ondorengo proposamena luzatu zuen, «nahi duenari deitzen diot, urte honetan zehar, 10 minutuko hiru txandan, 125 kiloko kubikoarekin apustua egiteko». Aurkari bakoitzak 10.000 euro jokatu litzatekeela ere gaineratu zuen.

«Gertaera honek herri-kirolen munduan eta honetatik at sortu duen zurrumurrua ikusita», Aimar Irigoien taldekoek, bera tartean dela, erronka horri aurre egitea erabaki dute, baina, baldintza ezberdinekin. Hala ere, garbi utzi zuten atzo Tolosako Kantabriko egindako agerraldian, botatako desafioa ez dagoela Izeta II.ari bakarrik zuzenduta, hau da, edozeinek har dezakeela.

Irigoien osaba eta bere taldekide den Patxi Jauregik, atzo Kantabriko tabernan eskaniko prentsaurrekoan hasieratik azaldu zuen, orain arte, ez zutela apustuen mundu horretan sartzea pentsatzen. Izan ere, Errezilgo harri-jasotzaileak oraindik 22 urte ditu eta denbora asko dauka etorkizunari begira. «Baina ikusita Izeta II.ak luzatu duen erronkan Aimar bera ere tartean sartzen zuela, erronka horri aurre egitea erabaki» dutela adierazi zuten atzo.

### Aimar Irigoienek plazaratutako baldintzak

Joxe Ramon Iruretagoienak agertzutako baldintzetako batzuk aldatu ditu Irigoienek. Hasteko, 125 ki-



Aimar Irigoien eta bere taldekideak atzo Kantabriko egindako agerraldian. ESTI EZEIZA

### » PROPOSAMEN BAKOITZAREN BALDINTZAK

#### Izeta II.arenak

- **Harria.** 125 kiloko kubikoa.
- **Txandak.** Hamar minutuko hiru txanda.
- **Dirua.** 10.000 euro aurkari bakoitzak.
- **Noiz egin.** 2008ko urtean.

loko harri kubikoa beharrean, 150ekoa izango litzateke. Harri-jasotzailearen esanetan, «orain arte, handiekin eta txikiekin bakarrik ibili izan gara, eta tarteko bat bilatu nahi izan dugu». Bestalde, hamar minutuko hiru txanda izango lirateke, eta batetik bestera, bost minutuko tartea izango lukete harri-jasotzaileak, indarrak hartu ahal izateko. Gainera, aurkari bakoitzak 30.000 euro jokatzeko proposatzen du errezildarrak. Apustua azaroaren 15etik abenduaren 31ra bitartean jokatu litzateke. Azkenik, ezinbestekoa izango litzateke,

#### Aimar Irigoienek

- **Harria.** 150 kiloko kubikoa.
- **Txandak.** Hamar minutuko hiru txanda.
- **Dirua.** 30.000 euro aurkari bakoitzak.
- **Noiz egin.** 2008ko azaroaren 15a eta abenduaren 31 bitartean.

bi harri-jasotzaileek doping-eko kontrolak gainditzea.

Desafio hau mahai gainean jarritan, onartu nahi zuenari apirilaren 12an Tolosako Kantabriko tabernara agertzeko deia luzatu zuen atzo Irigoienek. Azalduz, bera han egongo dela aurkariaren zain 18:00etatik 20:00etara, hitz egiteko. Errezilgoak agertu zenez, berak jarritako baldintzak horiek badira ere, «egun horretan hitz egin beharko da, eta agian, aldatetaren bat ere onartuko nuke». Tokiari dagokionez, Irigoien taldeko Patxi Jauregik azaldu

zuen, oraindik erabakitze dagoela, eta aurkariarekin eztabaidatu beharko litzatekeela.

#### Harri-jasotzaileen egoera

Orain dela 14 urte apustu hau bera jokatu zuen harri-jasotzaile aiarrrak. Kasu horretan, Landarbidetza izan zuen arerio. Gainera, mota honetako harriekin askotan lan egindakoa da Izeta II, eta eroso sentitzen da honekin. Aimar Irigoienek berriz ez du mota honetako harriekin esperientziarik. Beraz, Jauregik azaldu bezala, «zerotik hasi beharko du prestatzen, eta ikusi egin beharko da zer nola erantzuten duen. Dena den, Aimarri beti gustatu izan zaizkio erronka handiak, eta oraingo hau ere horrela izango da».

Bestalde, gaineratu zuen ere apustua aurrera baldin badao, zurrerrik harri handiko txapelketatik kanpo geratu beharko lukeela. «Zaila baita bi prestateta ezberdin koordinatzea».

## Z zurea da hitza info

# Oinezkoen bide arriskutsuak

#### AMAROKO AUZOTAR BAT

Bestela esaezue lurrera erori garen bost amaroztarroi. Izan ere, auzokide bat, oinezko bide horietako bat igarotzen ari zela, egun euritsu horietako batean, irrist egin eta izugarritzko danbatekoa hartu zuen. Gainera, badakigu, bizilagun gehiagori ere gauza bera



Amaroz auzoko zebraidea labainkor egoten da eurirekin. HITZA

gertatu zaiela, Amarozen nahiz hirigunean. Dirudienez, bide hauek margotzeko erabili duten margoa oso labainkorra da eta arriskutsua gertatzen da euria egiten duenean.

Okerrena da, bere garaian kexa bat plazaratu genion Tolosako Udalarri, adieraziz oinezko bide hauen arriskua, eta zerbait egin zezan. Baina hilabeteak igaro dira horitutik, eta honek berdin jarraitzen du.

# Leire Olaberriak Pekingo Olinpiar Jokoetarako txartela eskuratu du

**Ikaztegieta** » Munduko Txapelketan atzoko puntuazio proban laugarren egin zuen eta «ezin hobe» aritu zen.

**NEREA URBIZU**

Adierazi zuten astean zehar, Leire Olaberriak Olinpiar Jokoetara joateko %75eko aukerak zituela, eta dena behar bezala joanez gero, Pekinera joango zela. Hala izan da: atzoko puntuazioko proban laugarren egin zuen, «ezin hobe aritu zen, autoritatez, ziurtasunez», Daniel Larruskain Cespa-Eustraktaldeko idazkariak adierazi zuen bezala. Bi albiste on dira beraz: alde batetik, laugarren egin duela, eta bestetik, Olinpiar Jokoetara joango dela.

14:30ean puntuazioko proba hasi zen eta luxuzko parte-hartzea izan zen, proba honetako espezialista guztiak bertan izan baitziren. Leire Olaberriaren aurretik hiru favoritoek bukatu zuten: Marianne Vos lehenengo, Schmidt bigarren eta Vera Carrara hirugarren. Ondoren, Olaberria. Bates australiarra (gaur egungo txapeladuna), Yan Li (Munduko Kopako txapeladuna), edota Olga Slyusareva atzegan geratu ziren.

Leire Olaberriak «dasai eta konfidantza» zeukan atzo goizean,



Olaberria Manchesterren osteguneko jazarpen proba egin ondoren. HITZA

probaren aurretik, Daniel Larruskainek adierazi bezala. Gainera, «fisikoki oso indartsu zegoen, oso ongi prestatuta». Proba bukatu ondoren, berriz, «oso pozik. Begiradana islatzen zuen poza».

## Probaren nondik norakoa

Leire «bikain» aritu zen, lehenengo sprint-a irabazita. Ondoren, beste sprint bat ere irabazi zuen. Hirugarren sprint-ean, berriz, laugarren egin zuen. Guztira, 11 puntu

lortu zituen beraz. Bere aurretik geratu direnek bira bana irabazi zuten: bira hauek 20 puntu balio dute. Horregatik irabazi zuten. Leireren ondorengoak atzera xamar geratu ziren: atzoko probarekin «asko urrundu zen besteengandik».

Urte osoko probak hartzen dira kontuan honetarako. «Olaberria maiatza aldera hasi zen prestatzen Munduko Txapelketa eta nabaritu egin da: egun hauetan egin du-

na oso ondo dago, baina kontuan izan behar da urte osoko lana izan dela. Atzokoa azken eder bat izan zen, ondo egindako lana hobeto

## Leire Olaberriaren ondorengoak atzera xamar geratu ziren, alde handiarekin

**Bi albiste on jaso dituzte: batetik laugarren egin zuela, eta bestetik, Olinpiar Jokoetara doala**

## Olinpiar Jokoetara joateko txartela lortzeko guztien artean posturik onenean zegoen

bukatzea». Izan ere, laugarren bukatzea «gauza serioa da».

Puntuazioko proban 100 bira eman behar dira, eta 10 bira ematen diren aldirio, sprint-a egiten da: «Azken hau da puntuak ematen dituen». Bestetik, bada puntuak lortzeko beste modu bat: «Bira bat ematen duzunean eta beste txirrindulariak harrapatzen dituztenean. Honi bira hartzea esaten zaio», Larruskainek azaldu bezala. Olaberriak ez zuen hau egiterik izan, eta podiuma egin zutenek bai.

Olaberriak, Larruskainen arabera «ez zuen sufritu, ez du apurrik pasa, eta memento oro dominatu egin du». Puntuazioko proba, pistean, «garrantzitsuen da, politena».

**Olinpiar Jokoetarako txartela**  
Titulua jokoan egoteaz gain, beste borroka bat ere bazuten txirrindulariek: Pekingo Olinpiar Jokoetarako txartela. Postua mantenduta, Olinpiar Jokoetarako txartela lortuta zeukan. Zaindu behar zituen txirrindulariak hauek ziren: Grain, Slyusareva, Lee, Jeuland, Schmidt eta Guerrero. Aipatutako zazpi horietatik lauek lortu dute pasaporte olinpikoa eta Olaberria guztien artean posturik onenean zegoen, atzoko azken proba egin aurretik.

## Ostegunean, marka berria

Joan den ostegunean marka berria jarri zuen ikaztegiatarak 3 kilometrokoan: Espainiako marka berria da. 415 milesimatan jaitsi du bere aurreko erregistroa (2007an Palman-Herrialde Katalanak lortutakoa) eta orain 3'41"557koa da. Denborahorrek, 15. amaitu zuen jazarpen proban, iazko emaitza hobetuta, 16. egin baitzuen.

«Beharbada behar nukeena baino arinago atera nintzen lehenengo itzulietan eta hori huts egin nuen, azkenean ordaindu egin dut-eta; baina garrantzitsuen da, denboraldiko momenturik inportanteenera baldintza fisiko onenean heldu naizela, eta buruz ere ondo nagoela», adierazi zuen Leire Olaberriak ostegunean.

## Gutunak

### Gaur, banoa etxetik

Gaur banoa etxetik. Ez da nire erabakia izan, etxeko jabeak horrela erabaki du. Hogei urte eta gero kontratua ez didala gehiagorik berriro erabaki du. Bidalitako paper ziztrin batean horrela jartzen du. Izan ere, «sin derecho a prorrogata forzosa» delako esaldi horrek eskubide osoa ematen omen dio hori egiteko. Bere eskubidea da. Berea, eta ez beste inoren.

Hilabete bat eman dit. Izan ere, ez da erraza bizitza erdia maletan gorde eta ospa egin, ez behintzat, zure gogoz kontra alde egin behar duzunean. Baina bere eskubidea omen da.

Maleta handi xamarra daramat, bizitza erdi bat sartzeko lekua behar da eta... Oroitzapenak dolestu, bizipenak txukun-txukun jarri bata bestearen aloban, kremaileira ondo-ondo itxi... eta banoa nire etxeminakin.

Maleta handi xamarra izan arren, ez da batere pisutsua. Arin eraman dezaket nire maleta, inoiz ez zaidalako faltatu laguntzarik.

Banekien lagun ederrak nituela, ez nengoen oker. Nire lagunak

«con derecho a prorrogata forzosa» dira niretzako, une aproposenean agertzen direlako beste behin. Zorionekoana izan ni!

Lerro hauetatik, nire eskerrik zintzoena, beste etxe bat bilatzen lagundu eta aholkatu didatenei nahiko nieke helerazi:

Bakartxo maiteari nola ez, nire arnasa. Karmen, etxe berriko jabea, emandako konfidantzagatik. Baita nire ama eta ahizpari ere, zutabe ezin besteakoak, Aitor, nire anaiari eta autobuseko paradako, Inmari, errextu didatelako aldaketa. Ezin ahaztu Josune, Eider eta Mila, agertu duten kezkarengatik. Maite, prest egoteagatik. Nire bi lankideei Fati eta Monica, nire eromenak goizero-goizero jasan dituztelako.

Bidegabe jokatuko nuke, Alegia, ko zenbait lagun aipatuko ez banituzke, haiek ere, beraien kezka agertu didatelako: Zubeldia eta Tere, Jubilatueneko Marijo, Patxi eta Nekaneri, kontakatuak lortzeagatik, Jose manueli, azken aholku bat emateagatik... eta oro har hila-bete zoro honetan lagundu didaten guztiei. Beraz, mila Esker guztiei.

**Maria Karrera Garcia.** Tolosa.



## Gipuzkoa irabazle, Arabaren kontra

**TOLOSA** » GRAVN Txapelketaren baitan Tolosaldeko jokalariek atzo aritu ziren Tolosaldeko Beotibarren. Aste-buru honetan Gipuzkoa Arabarekin lehiatu behar zen. Lau partidajokatu zituzten gipuzkoarrek eta lauk irabazi zituzten: Aurrera-Saiatz pilota eskolako Senperena 22 urte azpikoan aritu zen eta irabazi egin zuen (22-16). Bikoteetan maila berean, Gipuzkoa 22-2 erraz gailendu zen. Senior mailako banakakoan ere, Bengoetxeak 22-5 irabazi zuen, aise. Azken partidari

Zazpi-Isturri pilota eskolako Elurbe-Irurera aritu ziren senior mailan eta hau ere irabazi egin zuten 22-14. Beraz, garaipen argia Gipuzkoarentzat izan zen. Txapelketa honetan Gipuzkoako, Errioxako, Araba, Bizkaia eta Nafarroako pilotariak aritzen dira: Probintzian txapeladunak izan direnak dira jokalariek. Beraz, partidak maila hobegokoak izateko aukerak daude. Irudian, Aurrera-Saiatz pilota eskolako Senperena sakea egiten. N. URBIZU



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leizaola:** 687 410 022. anoeta/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra/Leizaola:** 687 410 032. ibarra/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza/Leizaola:** 687 410 118. leitza/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa abian da. Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira apirilaren 18a baino lehen.  
■ **Tolosa.** Gerra Zibilean erreprosaioa jasan zuten biktimen eta familien informazioa jasotzeko bulegoa Aranburu Jauregian, astelehenean 16:00etatik 20:00etara, astearteetan 09:30etik 13:00etara eta ostegunetan 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Aranzadi zientzia elkarrekin antolatuta.

### Erakusketak

■ **Alegia.** Patxi Tena urtero Kubara joaten da eta bertatik, artea ikasten duten ikasle lanak ekartzen ditu. Ikusgai hilaibete osoan zehar jubilatuen tabernan.  
■ **Tolosa.** Euskarazko komikien erakusketak Kultur Etxean, 17:00etatik 20:00etara astegunetan, eta 10:00etatik 13:00etara asteburuan.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Betizu eta urrezko zintzaria* haurrentzako filma emango dute Leidor aretoan gaur 17:00etan. Eta 19:30ean *En el valle de Elah* filma.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

### BIHAR

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

# la loteria tokatzea bezala

**Zizurkil** » Joxe Arregi plazan eraiki behar dituzten 24 etxebizitza babestu zozketatu zituzten atzo goizean.

### ERREDAKZIOA

Bonboaren faltan, zakutxo batetik zenbakiak atereaz joan ziren atzo goizean Zizurkilgo Kultur Etxean. Irabazteko zegoena ez zen loteria, baina askorentzat, honen parekoa. Izan ere, Joxe Arregi plazako 24 etxebizitza babestu zozketatu zituzten atzo Zizurkil.

Denera 30 eraikitze asmoa dute, eta atzokoan horietatik 24 banatu zituzten. Etxebizitza hauek 75 urterako azalera-eskubide erregimenekoak dira. Bizitza hauek bat, bi eta hiru gelakoak izango dira, eta guztiak trastelekua eta garajea izango dute. Etxebizitza bi bloke ezberdinetan eraiki dituzte. Hauen erdiak zizurkil-darrentzat dira, eta gainontzekoak, gipuzkoarrentzat.



Loteriako bonborik ez zegoenez, zakutik zenbakiak atereaz joan ziren txandaka, izena emanda zutenak. ESTI EZEIZA

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Eneko Artola Amundarain (Tolosa).** Gaur 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**

emanaldirako  
**2 sarrera pare** zozketan  
deitu eta eskuratu

Ostirala, apirilak 4,  
20:30ean  
Tolosako Leidorren

**Soledad Ruz...**

**FLAMENKOA**



HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**